



**O**rain arte ditugun datuen arabera, gizakia Euskal Herrian agertu zeneko badira 150.000 urte, alabaina, presentzia luze honetatik bakar bakarrik gauzaki batzu, zenbait monumentu eta ikur gelditu zaizkigu, eta gebienetan beraien esanahia ilun geratzen zaigu, hala ere, inolako zalantza barik, Herri bonen ondare kulturalaren parte garrantzitsua dira.

Gure aurrehistoriari apur bat burreratzeaz gain, gaur eguneko, inguru honetako zenbait alderdi ezagutzeko ere, ondoko ibilbide hau burutzea proposatzen dizugu, bertan zenbait ebortze eraikuntzen aztarnak, hots, trikubarriak eta tumuluak, beba ditzakezu eta.

Trikubarri eta tumuluak, gure Herriaren orain dela 4.000 urte (K.a. 2.000 urte) basi zeneko metal aroaren testigantza nagusienetarikoz batzu dira. Trikubarri zabarrenak Ebro ibaia eta bere ibaiadarren harametan lekutzen dira, eta orokorrean, mendietakoak baino arkitektura komplexuagokoak dira. Beraz, teknika hau, geure Herrira begoaldetik etorri zela erraz suposa daiteke, bertoko eraginak erabat baztertu barik.

Hondar hauek, gaur egunerarte heldu zaigun geure aurrehistoriaren legatu aberatsa dira, etorkizunean ere, modu berean gordetzea geuri dagokigu, jagon beraz.



**Exkatxabeleko trikubarria**

## IBILBIDEA

I.I.Z.tik abiatuz, "Peñas Negras" (lekuari izena ematen dioten harkaitzak) inguratu eta eskumaldetik Alta Galdames (El Cuadro izenez ere ezaguna) mendien magaletik gora doan aldaia hartuko dugu. Hogeitabost minututako igoera burutu ondoren leku lau batera helduko gara, bertan bidea banatu egiten da. Zuzen 300 bat metro ibiliz gero, ur freskoko iturria aurkituko dugu. Guk oster, 15 minututan Alta Galdamesera igotzeko ezkerreko bidea hartuko dugu.

Alta Galdamesetik Ibaizabal arroa, Bizkaiko zenbait mendikate, bai eta ibili-



**Trianoko mendiak, La Cruz haitzpuntatik**

ko garen mendilerroaren ikuspegi zoragarria izango dugu.

Mendigailurretik Pico Mayor-erantz jarraituz, 5 minutuko jeitsieraren ondoren Eskatxabel bizkarrera helduko gara, non izen bereko trikubarriaren aztarnak beba daitezkeen. Hemendik, eta 10 minutuko igoera laburraren ondoren, Pico Mayor-era iritsiko gara, gailurrean bertan tumulu baten aztarnak ikusiko ditugularik.

Hortik, eta beti mendilerroari jarraituz, 10 minututan La Breña-ko bizkarrera jeitsiko gara. Bertan, Gromeranekeko bizkarreraino heltzeko Pico Menor inguratzen duen aldaia har dezakegu, edo bestela, mendi honetara igoz (bidea ez dago ondo zehaztuta baina begi erreferentziak



**Ganeraneko tumulua**



**La Cruz haitzpunta**

ondo hartuz gero ez dago galtzerik) leku berberara heltzeko.

Gromeranekeo bizkarretik, zuzenean I.I.Z.ra jeitsi nahi badugu, beherantza doan aldai zabala har dezakegu. Mendikatetik jarraitu nahi izanez gero, Ganeran gailurrerantz altzifre baso zarratuaren zehar doan bidezidorra hartuko dugu, 25 minutuko igoera burutu ondoren tontorrera heltzeko. Tontorra baino metro batzu lehenago Ganeranekeo tumuluaren ondotik igaroko gara.

Lepotik jarraituz Mustariagako bizkarrera jeitsiko gara (200 bat metrora hego hegalean, iturri bat aurkituko dugu), eta hortik Aldape mendira igoko gara, Gazteran izena ere jasotzen duena (20 minututan).

Gazteranetik, inolako arazorik gabe (bidezidorra ondo argi agertzen baita) 20 minuturen buruan Pico de la Cruz-era iritsiko gara, inguruko mendi bitxiena, karehaitz soila baita.



**La Cruz haitzpuntako gutunontzi**

Itzulia, Gromeranekeo bizkarreraino bide beretik egin daiteke, bertan I.I.Z.ra zuzenean eramango gaituen aldai zabala hartuko dugu.

Aukerako bide samurrago bat, Gazteranekeo iturritik abiatzen da eta altzifre baso baten zehar 20 minututan Mustariagaraino eramango gaitu. Hemenetik, Ganeranekeo mendebal magalean zehar ezkerretatik beherantza doan bidezidorra hartuko dugu, honek, aurrerago, gorantz doan beste bide zabalago batekin bat egiten du, guztira 30 bat minututan Gromeran bizkarreraino helduko garelarik. Bertatik, aldai zabalean zehar I.I.Z.ra jeitsiko gara.

**360 m.** Goibehea: Ibilbide honetako gutxi gora beherako goibehea 360 metrokoa da, "Peñas Negras" I.I.Z.ko 460 metrotik, Ganeranekeo 822 metrora —ibilibideko gailurrik altuena—.

**4 h.** Orduetgia: Joanean, 2 ordu eta 30 minutu. Etorreran, ordu bat eta 20 minutu. Joan eta etortzeko denbora, 4 ordu gutxi gora behera.

**Zailtasuna:** Erdi-handikoa. Ibilbidea "Peñas Negras"etik hurbilen geratzen diren Triano mendietako gailurretatik burutzen denez nahiko zangohauslea dela esan daiteke. Zailtasunik handienak Alta Galdames (El Cuadro) eta Ganeranekeo igoeretan daude. Bestalde, Pico de la Cruz-eko kareharrizko aldatza arretaz igotea aholkatzen da.

#### EZAUGARRIAK

Ikuspegiak, historiaurreko aztarnak, geologia, industri arkeologia eta landaretza.